

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

#### ARABAKO LEGE ETA ADMINISTRAZIO ERAKUNDEA

##### **Ebazpena jakinaraztea. 163/2018 espedientea**

Beherago aipatzen den erreklamazio ekonomiko-administratiboaren prozedura dela-eta, administrazio egintza bat eman da. Egintza hori ezin izan zaio jakinarazi, ordea, interesdunari, espedientean jasota dagoen helbidean, nahiz eta derrigorrezko bi jakinarazpen saiakerak egin diren.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboen prozedurari buruzko arautegiak (2/2007 Foru Dekretua, urtarrilaren 30eko Diputatuen Kontseiluarena) 23. artikuluan eta Arabako zerga orokorrari buruzko arauak (6/2005 Foru Araua, otsailaren 28koa) 108. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, interesdunari dei egiten zaio Lege eta Administrazio Erakundearen bulegoetan (Probintzia plaza 14, 4. solairua, Gasteiz) ager dadin, 08:15etik 14:30era bitartean, jakinarazpen bat baitu jasotzeko. Horretarako, hamabost egun natural izango ditu, iragarki hau argitaratzen denetik aurrera.

Epe horretan agertu ezean, jakinarazpena eginda dagoela ulertuko da lege ondorio guztietarako, epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Norentzako: Javier Larrea Larregola.

Erreklamazio zenbakia: 163/2018.

Administrazio egintza: ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 12a

*Kide-idazkaria*

**LUIS MURO GARCÍA**